

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

SEGURTASUNA

1. 2017. urtean, Estatu Batuetako Los Angelesko Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak..... 2



1.- Izenburua

2017. urtean, Estatu Batuetako Los Angelesko Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko urriaren 11koa, Segurtasuneko sailburuarena, 2017an Los Angelesen (Ameriketako Estatu Batuak) egin diren Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak arautzen eta deialdi batean ateratzen dituen. EHAA 199 zk., 2017/10/18koa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburuak:

- Ertzaintzaren irudi positiboa sustatzea hala Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan nola kanpoan.
- Kirol-lehiaketan balioak sustatzea, aintzat hartuta horietako asko parte-hartzaileen jarduera profesionalarekin erlazionatuta daudela modu batera edo bestera, eta parte-hartzaileok baldintza fisiko onenetan egoteko balio dutela.
- Ertzaintzako kideek erakundearen parte direla are gehiago sentiaraztea eta beste kultura eta komunitate batzuekin laguntasun- eta truke-harremanak ezartzea. Horrela, Ertzaintzaren irudi ona sustatu eta hedatuko da zeregin profesionalaren alderdi guztietan.

Deskribapena:

- 2017ko abuztuaren 7tik 16ra bitartean Los Angelesen (Ameriketako Estatu Batuak) egin diren Polizien eta Suhiltzaileen XVII. Munduko Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako diru-laguntzak.
- Eskatzaile bakoitzari jokoetan parte hartzeagatik izandako gastuaren % 60 emango zaio gehienez, betiere agindu honetan ezarritako mugekin, eta inoiz ez mila eta bostehun (1.500,00) euro baino gehiago. Dotazio ekonomiko guztia: 10.500 euro.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurkeztu ziren eskabide guztietatik Ertzaintzako 5 agenteri eman zitzaizkien diru-laguntzak, 785,93 eta 1.237,62 euro bitarteko kopuruak. Hortaz, guztira diruz lagundutako kopurua 5.505,83 eurokoa izan da.

Los Angelesko Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan Ertzaintzako 7 agentek parte hartu zuten eta 8 domina lortu zituzten, horietako 5 urrezkoak. Emakume parte hartzaileetako batek urrezko 3 domina eta brontzezko 1 lortu zituen. Horrek guztiak hedabideetan zabalkunde handia izan zuen eta nazioarte mailan, 10.000 parte hartzaile ere izan ditzaketen nazioarteko jokoan testuinguruan, Ertzaintzaren irudi positibo bat eman zuen.